



## 7/2017 AKTA

2017ko urriaren 26an, 12:30ean, Vitoria-Gasteizen elkartu zen **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau jorratu zuten:

1. Aurreko bileraren akta (6/2017 akta) irakurtzea eta onartzea.
2. Esleitutako espedienteen ebazpen-proposamenak egitea, eta oraindik ebatzi ezin daitezkeen espedienteen egoeraren berri ematea.
3. Galde-eskeak

### **PRESIDENTEA:**

Javier Bikandi Irazabal jauna

### **KIDEAK:**

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Ana Arkotxa Azkue andrea

### **IDAZKARIA:**

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

### **1.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.**

Batzordearen 2017ko uztailaren 18ko bileraren akta irakurri da, eta aho batez onartu. Ondoren, parte-hartzaileek sinatu egin dute.

### **2.- 2017-000058 espedientearen ebazpen-proposamena**

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidentek. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 17/2017 Ebazpen gisa.

### **3.- 2017-000062 espedientearen ebazpen-proposamena**

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidentek. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 18/2017 Ebazpen gisa.

### **4.- 2017-000063 espedientearen ebazpen-proposamena**



Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 19/2017 Ebazpen gisa.

#### **5.- 2017-000066 espedientearen ebazpen-proposamena**

Ondoren, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak, eta, ebazpena eman aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eman duen eta kexagileari igorri zaion informazioarekiko adostasuna lortu arte itxarotea proposatu du horrek. Ados baldin badago, onartzeko ebazpena emango litzateke, arrazoi formalak tarteko; ados ez badago, ordea, aztertu egingo litzateke, eta Batzordera igorriko litzaioke proposamen berria.

#### **6.- 2017000069 espedientearen ebazpen-proposamena**

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 21/2017 Ebazpen gisa.

#### **7.- 2017000070 espedientearen ebazpen-proposamena**

Gero, proposamena egin duen kideari eman dio hitza presidenteak. Proposamena aurretik bidali zen, batzordeko kideek azter zezaten. Berori aztertu ondoren, aho batez onartu da, 22/2017 Ebazpen gisa.

#### **8.- Galde-eskeak**

Presidenteak eta Koldobike Uriarte kideak eskerrak eman dizkiote Ana Arkotxa kideari, Batzordearen lehenengo urtean egindako lanarengatik. Presidenteak informatu duenez, laster ezagutaraziko zaio Gobernu Kontseiluari Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren AGINDUA, Ana Arkotxa berak hala eskatuta kargugabetzen duena eta Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeko kide berria izendatzen duena.

Kontu horren harira, Batzordea sortu zenetik urtebete igaro dela azaldu da, baina ez dela onartu Batzordeko kide funtzionarioen konpentsazio ekonomikoaren



---

arabidea (Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak ezartzen zuen arabide hori), eta, beraz, ez direla abonatu jarduerari eskaintako denborarengatik eta arduraldiarengatik zein benetan jorratutako gai-kopuruarengatik egokituko liratekeen zenbatekoak.

Jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, 14:30ean amaitu du saioa presidenteak.

**Idazkaria**  
**Koldobike Uriarte**

**Presidentea**  
**Javier Bikandi**

**Kidea**  
**Ana Arkotxa**